

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2020KO ABENDUAREN 3KOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, 2019-2020 IKASTURTEAN HABEREN A1, A2, B1 ETA B2 EUSKARA-MAILAK EDO HORIEN BALIOKIDEAK EGIAZTATU DITUZTEN IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEN DIZKIENA.

HABEren zuzendari nagusiaren 2020ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez 2019-2020 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu dituzten ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautu eta dagokion deialdia egin zen. Ebazpena uztailaren 924ko EHAAr argitaratu zen.

Deialdi honetan zehaztutako prozedura eta irizpideak aplikatu ondoren eta deialdi bereko 6. eta 7. oinarriek ezarritakoari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- HABEren A1, A2, B1 eta B2 mailak edo baliokideak egiaztatu eta I. eranskinean jasotzen diren ikasleei adierazitako dirulaguntza ematea, dirulaguntzaren zenbateko osoa 2.395.916,58 euro delarik. Aipatu laguntza-kopuruak finkatzeko kontuan hartu dira eskatzaile bakoitzak egiaztatutako mailak, bakoitzak euskaltegietan edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan ordaindu eta egiaztatu dituen matrikula-kopuruak, HABEk aurreko urteetako deialdien bitartez diruz lagundutako ikastaroak eta beste Herri Administrazioetatik ikasleak eskuratu dituen dirulaguntzak, azken hauek deialdiaren 8. oinarriak dioenari begira.

Bigarrena.- II. eranskinean aipatzen diren ikasleei dirulaguntzarik ez ematea, bertan azaltzen diren arrazoiak direla-eta.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan (<http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>) argitara emanez eta, emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, HABEren web orrialdean argitaratuz (www.habe.euskadi.eus).

Laugarrena.- Ebazpen honetako I. eranskinean esleitutako laguntzak ordaintzeko agindua ematea.

Bosgarrena.- Interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtsioa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2020ko abenduaren 3an.

HABEren zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2FK0-B38Z bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2FK0-B38Z en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>